ROQUE DALTONEN HAMALAU POEMA

G.ENSSLIN & A.BAADER

# POEMAS CLANDESTINOS/ SASIKO OLERKIAK

<ezin da edozer defendatu baina bide guztiak dira zilegi>
UMPS [ap]: Arbeitsrat für Kunst
<Вся власть самиздатам!> UMPS [ap]: pamphletocовéта



G.ENSSLIN & A.BAADER
BILBO (JORDANIA)

Bilduma honetatik egin dugu gure hautua: Roque Dalton, Poesía Roque Dalton, Colección La Honda Casa de las Américas, 1984 Habana. Mario Benedettiren hautua. Geure eskuetara ere honakoa heldu da Espainiako Erreinuak azpiraturiko lau herrialdeetan: Roque Dalton, Roque Dalton Antología, Visor, 2000 Madril. Mario Benedettiren hautu eta hitzaurrea.

*CCCP-CC-BY-SA Aitortu-Partekatu-Eraldatu: Libreki hedatu lan hau. Etekin ekonomikoa atera dezakezu baldin eta horrekin zure eguneroko sufrikarioa arintzen baduzu edo Bilboko Burtsaren aurkako eraso (baketsua-hiritar-bio-politikokiZuzena) finantzatu behar baduzu. Bestelako erabilerak erabat debekatuak daude. Bereziki errebeldia pose bat dela uste edo praktikatzen dutenei.*

ROQUE DALTONEN HAMALAU POEMA

# POEMAS CLANDESTINOS/ SASIKO OLERKIAK

## Roque Daltonen bilduma bat.
## 3/3 alea.

Itzulpen lanak Andreas Baaderek eta Gudrun Ensslinek egin dituzte.
Geure komandoak gustura hartuko ditu kide berriak.
Idatziguzu hiru koloretako zakurrek ere irakurtzen
duten andreasetagudrun@gmail.com helbidera.

<ezin da edozer defendatu baina bide guztiak dira zilegi>
UMPS [ap]: Arbeitsrat für Kunst
<Вся власть самиздатам!> UMPS [ap]: pamphletocoвéта

| TERCER POEMA DE AMOR | HIRUGARREN MAITASUN POEMA |
|---|---|
| A quienes te digan que nuestro amor es extraordinario | Gure maitasuna ohiz kanpoko egoera batean jaio denez |
| porque ha nacido de circunstancias extraordinarias | ohiz kanpokoa dela esango dizute, |
| diles que precisamente luchamos | esaiezu preseski borrokan ari garela |
| para que un amor como el nuestro | geurea bezalako maitasuna |
| (amor entre compañeros de combate) | (borroka kideen arteko maitasuna) |
| llegue a ser en El Salvador el amor más común y corriente, | Salvadorko maitasun arrunt eta ohikoena izan dadin, |
| casi el único. | ia bakarra. |

G.ENSSLIN & A.BAADER
BILBO (JORDANIA)

zuzeu albistaria

UMPS
ANGIOLILLO PAMPHLETISTEN

>DERSCHMÄHSCHRIFTFÜRDENKULTURWIDERSTAND<
[ZUZEU.COM [ANDREASETAGUDRUN.WORDPRESS.COM/
-BLOG [@ANDREAS_GUDRUN-TWITTER [ANDREASETAGUDRUN@GMAIL.COM
[ZUREAUZOKOKAFETEGIAN [SAMIZDATELEBIDUNA
[BILINGUALсамиздат [2012KO MARTXOA, SAN SALVADOR
(WALHALLA- BOLIWARIAŃSKA REPUBLIKA WALHALLI)

ROQUE DALTON_1935 1975 &GUDRUN ENSSLIN &ANDREAS BAADER

| PARA UN MEJOR AMOR | MAITASUN HOBE BATENTZAT |
|---|---|
| *«El sexo es una categoría política».* | *«Sexua kategoria politikoa da».* |
| KATE MILIS | KATE MILIS |
| | |
| Nadie discute que el sexo | Inork ez du zalantzan jartzen sexua |
| es una categoría en el mundo de la pareja: | bikotearen munduko kategoria denik: |
| de ahí la ternura y sus ramas salvajes. | horri lotzen dizkiogu samurtasuna eta bere aldaera basatiak. |
| | |
| Nadie discute que el sexo | Inork ez du zalantzan jartzen sexua |
| es una categoría familiar: | familiako kategoria bat denik: |
| de ahí los hijos, | hortik seme-alabak, |
| las noches en común | gauak elkarrekin |
| y los días divididos | eta egunak bananduta |
| (él, buscando el pan en la calle, | (bata ogi bila kalean, |
| en las oficinas o en las fábricas; | bulegoetan edo lantegietan; |
| ella, en la retaguardia de los oficios domésticos | bestea etxeko lanen erretagoardian |
| en la estrategia y la táctica de la cocina | sukaldeko estrategia eta taktikan |
| que permitan sobrevivir en la batalla común | hilaren amaierako bataila komunean |
| siquiera hasta el fin del mes). | biziraun ahal izateko). |
| | |
| Nadie discute que el sexo | Inork ez du zalantzan jartzen sexua |
| es una categoría económica: | kategoria ekonomikoa denik: |
| basta mencionar la prostitución, | nahikoa da prostituzioa aipatzea, |
| las modas, | modak, |
| las secciones de los diarios que sólo son para ella | bakarrik emakumeentzakoak diren egunkarietako sekzioak |
| o sólo son para él. | edo bakarrik gizonentzakoak direnak. |
| | |
| Donde empiezan los líos | Nahaste-borrasteak hasten diren eremua |
| es a partir de que una mujer dice | da emakumeak sexua kategoria |
| que el sexo es una categoría política. | politikoa dela dioenean. |
| | |
| Porque cuando una mujer dice | Ze emakume batek dioenean |
| que el sexo es una categoría política | sexua kategoria politikoa dela |
| puede comenzar a dejar de ser mujer en sí | agian berez emakume izateari utziko dio |
| para convertirse en *mujer para sí*, | *bere buruarentzako emakume* bihurtzeko, |
| constituir a la mujer en mujer | emakumea emakumean eratuko da |
| a partir de su humanidad | bere humanitatetik |
| y no de su sexo, | eta ez bere sexutik, |
| saber que el *desodorante mágico con sabor* | jakitea *limoi zaporezko desodorante magikoa* |
| *a limón y el jabón que acaricia voluptuosamente su piel* | *eta zure azala atsegalez laztantzen duen xaboia* |
| son fabricados por la misma empresa que fabrica el napalm | napalma ekoizten duen lantegi berak ekoizten duela |
| saber que las labores propias del hogar | jakitea etxeko berezko lanak |
| son las labores propias de la clase social a que pertenece ese hogar, | etxe jakin bati dagokion klase sozialeko etxeko berezko lanak direla |
| que la diferencia de sexos | sexuen diferentziak |
| brilla mucho mejor en la profunda noche amorosa | askoz hobe distiratzen duela maitasunaren gau sakonean |
| cuando se conocen todos esos secretos | mozorrotuta eta arrotz egiten gintuzten |
| que nos mantenían enmascarados y ajenos | sekretu horiek guztiak ezagutzen ditugunean. |

ITZULPENA
ERE MAILUA DA!